



profitatu 'baliatu, aprobe txatu, onura atera'	«Amak esandakoak ondo gomutatuz, asto gurdi hura profitatu eta agindutakoa bete behar zuela pentsatu zuen.»	(18)
segatu 'ebaki, moztu'	«Handik gutxira, jendea topatu zuen soroan garia segatzen eta gari-sortak lotzen.»	(22)
seko tontoa 'guztiz tentela, lelo hutsa'	«Arraunlaria asmo bila zetorren edo seko tontoa zen, edo bi zeretan positibo.»	(46)
sigi-saga 'ezker-eskuin mugitu, sugeak legez'	«...hondartzan zehar sigi-saga joan zen.»	(75)
sunda 'usain sarkorra (janariena...)'	«Ur gazirik, nasarik, uhinik eta arrain sundarik gabeko lekuan zegoen azkenean.»	(52)
tantai 'erraldoia'	«Orduan agertu da sekulako olagarro handi tantai itzelezkoa.»	(102)
tapitu 'tupitua, sarria, zarratua'	«Pentsamendu hori gogoan zeramala joan zen Guakamaio Oihan Handian barrera alderik sakon eta tapituenerantz .»	(34)
tenore 'abagunea, egokiera, une aproposa'	«Bazen, berriz ere, ohiturak drezatu eta autoritatea indartzeko tenorea .»	(84)
tolet 'estakatxoa, arrauna lotzeko euskarri'	«Ezin zuen jasan ez itsaso, ez antxeta, ez barku, ez lema, ez amu, ez tolet , ez kostera, ez kofradia, ez berdel (...), ez olagarrik.»	(45)
tripakiak 'sabeleko erraiak'	«Beste egun batean, Djehak ahari tripakiak lortu zituen azokan, auskalo nola.»	(60)
trokotz 'dorpea, txarto egina'	«Makila trokotz batzuekin inguratu zitzaizkion eta jipoi penagarria eman zioten horiek ere.»	(23)
tutuka 'tu egiten, bozina jotzen'	«Olatuak beti bata bestearen atzetik etengabe, txalupak tutuka beti gurma artean, sardina zaharren usaina beti airean...»	(44)
txapel okerreko karabinero 'guardia zibila, espainiar polizia'	«Lebitadun alkateek txapel okerreko karabineroekin koordinatu zuten erabakia.»	(84)
txilaba 'jantzi txanoduna, tunika luzea'	«Saltzaile juduak Djeharen argudioa konprenitu zuen, eta txilaba dotore bat eman zion.»	(64)
ubel-ubel eginda 'ubelduraz josita, more'	«Ubel-ubel eginda heldu zen, baina beste zeresanik ikasi gabe. Edo ikasitako zeresanak ahaztuta.»	(27)
ubeldura 'ubeldua, odolbatua (kolpe ondor)	«Leunki ukitu zituen semearen ubeldurak eta urratuak, laztanez eta maitasunez hobeto sendatuko zirelakoan...»	(27)
ufadaka 'ufakoa, putzaldia'	«Haize Hegoa alde baterantz eta besterantz hasi zen abiatzen, ufadaka, zakua lehertu beharrez...»	(85)
uhin 'olatua'	«Batzuek horixe dute gogokoa: itsasoa, kostaldea, uhinak , arrantza, txalupak, eta legatzaren buztana.»	(43)
ukaldika 'kolpeka'	«...Balbinak jo eta aizkora ukaldika urratu zuen zakua.»	(88)
umil 'apala, xumea'	«...burua aurreko oinen gainean pausatu eta loaldi umil merezia onetsi.»	(78)
upel 'kupela'	«Hodei upel erraldoiak bertan behera hustu behar balira bezala.»	(76)
ur arrapalada 'uhinen amaieran parrastada, abiada'	«Orduan ikusi zuen, dortoka, hondartzan, uhinen akaberako ur arrapaladatik eta aparretik hurbil.»	(74)
usaiako 'ohikoa, betikoa, tradizionala'	«...Erriberan gora usaiako bidea eginez.»	(85)
xede 'helburua, jomuga'	« Xedea argia zen: ez ziotela Haize Hegoari beste aldera pasatzen utziko.»	(84)
xixtrin 'ziztrina, argaltxoa eta txikia'	«—Zergatik utzi diozu neskato xibaro xixtrin horri sua lapurtzen?»	(36)